



Gidabaimena
euskaraz merkeago
ateratzeko aukera
Buruntzaldean

Buruntzaldeko auto-
eskoletan gidabaimena
euskaraz ateratzen dute-
nek, parte teorikoa
musu-truk eskuratu
dezakete. *Semaforo ber-
dea!! Gidabaimena eus-
karaz ekimenari esker,*
eskualdeko auto-eskola
bakoitzean sari bat zoz-
ketatuko da. /4-5

Irakaskuntzan izan zuen eragin handien funtzionarioen grebak

Estatuak funtzionarioen soldata %5-a jaitsi nahi duela eta, ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS-ek sektore publikoan grebarako deialdia egin zuten maiatzaren 25erako, hau da, astearterako.

Gure herriko instituzioetan ia ez zen greba nabari, Osasun Zentroan larunbatean egon ohi diren langileak jardun ziren.

Kaleetan ordea, haur eta gazte ugari ikusi ahal izan genituen guraso edo aitona-amonekin. Izan ere, grebak Lasarte-Orian irakaskuntzan izan zuen eragin handiena, ikastetxe ezberdinek emandako datuen arabera.

Eragin ezberdinak

Nahiz eta Landaberi ikastolan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza greba ez zen nabaritu, Landaberi BHI-n irakaslearen %87ak egin zuen greba asteartean



Landaberi BHI-n eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxean astearteko grebak eragin handia izan zuen .

eta ikasle gutxi izan zituzten gelatan.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxe-ko gelak ere hutsik zeuden ia, haur gutxi gerturatu ziren

"30 bat" zuzendaritzak azaldu digunez, eta irakasleen %85ak jarraitu zuen greba.

Institutuaren ordea, irakasle-
en %25ak soilik egin zuen eta

ikasleak gelara joan ziren, Batxilergoko 2. mailako ikasleak, batez ere, azken hiruhilabeteko azterketak dituzte eta egun hauetan. •

Arrieskalletaren 3. urteurrena

2007ko maiatzaren 27an, herriaren erdigunean, Arrieskalleta elkarteak bere ateari ireki zituen. Hiru urte igaro dira geroztik eta urteurrena ospatzeko, bart, elkarteak afari-merienda prestatu zuten bere bazkide guztientzat. Giro paregabean, bazkideek ederki jan eta azken urte honetan elkarteak eta elkartearen antolatutako ekintzen argazkien proiektioa ikusi zuten. Hala nola, mus txapelketa, bertso saioa eta bertso forumak, mikologiari buruzko hitzaldia edo irteeren argazkiak ikusi zituzten. •



GIZARTEA/3

Maitane Rebek
Norbega/Coca-Cola
Narrazio Laburren
saria irabazi du

KIROLA/6

Erregional taldeak
igoeraren eta
koparen bila

KIROLA /6

Lasarte-Oria
herriarteko pilota
txapelketatik
kanpo dago



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

IEFPS USURBIL GLHBI

Aurrematrikula:
maiatzaren 3tik ekainaren 1ra



Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK



Mekanika



Elektrizitatea



Administrazioa



Energia eta ura

Mantenimendua

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com

Neure kabuz



Eman ta zabaldu

Maiatza badoa. Uda iristear da. Eta hementxe gaude ikasle gehienak, liburutegi bateko zoko batean denbora ia uler- tezinak suertatzen zaizkigun apunte batzuen aurrean galtzen. Gaurkoan idaztera noana, estres momentu bate- tako erreibelazio personal baten moduan ulertu behar dela abisatu beharrea nahiz.

Selektibitateko eta uni- bertsitateko ikasleak, EGA atera berri dutenak... agian, guztiz interesgarri zaizkigun kontzeptuak era sistematiko eta robotiko batean ikastera beharrik ikusten dugu gure burua, buruan hartu, eta azterketa egunean dena botatzeko. Eta hemen ar- zoa: gure garapen persona- lerako onuragarri beharko lukeenarekiko errepulsa da ikasketa sistema honen bidez soilik lortzen dena. Kontzep- tuak ez ditugu barneratuko, gustuz hartuak ez baitira izuz, ezinezko baita sistema honen bitartez era natural batean benetako ikasketa prozesua ahalbideratzea.

Urte osoko lana paper zati baten gainean soilik islatzean datza gure egitekoak. Axolarik ez nerbioek, presioak, momentuko letra txarrak, fetxa ahaztuak edota XVII. mendeko Frantziako margola- ri putakume haren izena gogoratu ezinak. Memorizat- zeko gaitasuna duenarentzat bikaina; gainerantzekoak, ordea, zulora.

Inongo zentzurik gabeko hezkuntza sistema bat bultza- tzen dutenentzat gaurkoan nire testua. Bolonia prozesua- ren bidez hau betikotu eta pri- batizatu nahi duten guztientzat. Irakasle inkompe- tenteentzat. Fakultatera noa oraintxe, ate aurrean kaka egi- tera eta emandakoa zabaltzera.

Taxdo Arrizabalaga

Zorion-agurrak



Naroa

Zorionak marisorgin zure 5. Urtebetetzean!!! Haizea, Andrea eta fami- lia- ren partez



Clara

Zorionak pottoki! muxu pilo bat 2. urte- betzean, Ane, Eneko eta osaba-izebaren partetik.



Aitor

Zorionak zure 2. urte- betzean! 2 muxu haun- di gurasoen partetik. Etxeko erregea zara!



Enaut

Zorionak eta 7 muxu potolo zure anai Oier, aiton-amon eta fami- lia- ren partez.



Oinatz

Txokolatezko 3 muxu potolo zure egunean, bihurri!!! Iraitz, Garazi, aiatxo eta amatxo



David

Zorionak eta ongi pasa zure egunean. Familiaren partetik.



Aitziber

Zorionak eta muxu asko. Familiaren parte- tik.



Asier

Zorionak eta 12 muxu aita, ama, anaia eta familioen partetik.



Ander

Uff! Dagoeneko 2 urte zure atzetik korrika. Zorionak Ander!



Aiora

Zorionak zure 5. Urte- betetzean! Familiaren partetik.



Javi eta Jose

Zorionak bikote! Larunbateko merienda zuen kontu! Ondo pasa masapasak!



Emilio

Zorionak aiona zure 100. urtebetet- zean! Burgos, Iruña, Valentzia eta hemengo familiaren partetik.



Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Etxe bat saltzen da Alesancon (Ezcarayren ondoan) lorategiare- kin, igerileku eta gune komunak. Tel.: 676 910 566.

• Pisua salgai Iruran. 3 gela, komu- na, sukaldea eta egongela. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Tel.: 695 785 153.

• Garaje plaza bat alokatzen da Mutiozabal kalean. Harremaneta- rako zenbakia, 629 661 316.

• Logela alokatzen da, pisu parte- katuan Lasarte-Oriako erdialdean. Pertsona arduratsua eta ez-erret- zaila bilatzen da. 250 euro gehi gastuak. Tel.: 686 932 714.

• Garage bat alokatzen da Liber- toko eraikinean, interesatutak deitu 667 812 940 telefonora

Lan-eskaintzak

• Lasarte-Orian martxan dagoen okindegia alokatzen da. Interea- tuak deitu 653 703 531 edo 943 550 089 telefono zenbakietara.

Lan-eskariak

• Txinerazko klaseak eskeintzen dira etxean bertan. Irakasle txina- tarra. Interesaturik daudenak 671 948 933 zenbakira deitu.

• Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta haurrak eta helduak zaintzeko. Interna moduan eta erreferentziekin. Tel.: 678 285 032.

• Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta haurrak eta helduak zaintzeko. Interna moduan eta erreferentziekin. Tel.: 638 965 543.

• Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta haurrak eta helduak zaintzeko. Interna moduan eta erreferentziekin. Arratsaldez. Telefono zenbakia: 639 863 075.

• Baserrian lan egiteko, mendia edo basoak garbitzeko edo igelt- sero lanak egiteko mutil bat eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 677 593 772.

• Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako (etxe, jatetxe, taber- na...) eta haur eta helduen zainke- tarako. Telefono zenbakia: 677 383 414 edo 663 311 865.

Oharrik jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 28

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371 151

Larunbata, 29

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Igandea, 30

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Astlehena, 31

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atea
Tel.: 943 361774

Astearte, 1

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteazkena, 2

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Osteguna, 3

Urbisondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

GAUEKOAK: 22:00-09:00, Egunero

Chucha, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Jaiotzak

Uxue Araolaza Elaez, maiatzaren 22an
Leire MatéSantos, maiatzaren 22an

Julen MatéSantos, maiatzaren 22an
Aratz Otaegui Gorostidi, maiatzaren 18an
Irati Caro Dominguez, maiatzaren 17an

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Maitane Rebek Coca-Colaren Narrazio Laburren saria lortu du

Maiatzak 20an, Bilboko Itzadarraren Museoan, Norbega/Coca-Cola antolatutako Euskarazko 2009-2010 Narrazio Laburren Sariaren sari banaketa izan zen eta bertan Landaberri BHI Lasarte-Oriako ikastetxeko Maitane Rebe ikasleak narrazio laburren saria jaso zuen Andres Urrutia Euskaltzaindiako buruaren eskutik. Maitanerekin batera, Sara Arruti Benitok seigarren sari bat ere jaso zuen.


Maitanek azaldu digunez, seigarren postutik hasi ziren sariak ematen, gero sari nagusiak eta azkenik, "urduri jarri nintzen, izenak esaten zituzten heinean. Nire lagun bat ere, Sara, nirekin zegoen eta hura ere oso urduri zegoen. Eta irabazlea nintzela esan zutenean ezin nuen sinetsi."

Opari pila eta bidaia

Maitanek opari pila izan zituen Gipuzkoako eta Euskadiko txapelduna izateagatik, "motxila eta bere osagarriak, musika ekipoa, Berlinera bidaia, ordenagailua eta inpresora," aipatu digu.

Sara Arrutik ere opariak izan zituen, musika ekipoa, kirol-zakua eta motxila.

Maitane Rebek jakin arazi digunez, Berlinera ekainean joango da beste gazte mordorekin, "hiru lehiaketa egiten dituzte, bata galegoz, bestea euskaraz eta hirugarrena, gaztelerez. Horrela, Galiziako gazte bat, Euskadiko bi, biz-



Maitane Rebek jaso dituen opariaren artean Berlinera bidaia dago.

kaitar bat eta biok, eta Estatu osoko hamazazpi gazte goaz Berlinera."

Gazteez gain, Montse Fabrega irakasleak ere lagunduko dio bost eguneko bidai horretan.

Euskarazko 2009-2010 Narrazio Laburren Saria

Zazpigarren edizioa izan da aurtengoa eta hego Euskal Herriko idazle gazteek hartu dute parte, 2. DBH ikasten ari direnak denak.

Maitanek azaldu digunez, "ikastolan idazlana egin eta bi aukeratu zituzten gela bakoitzeko. Zortzi joan ginen

Donostira lehiaketan parte hartzera."

Lehiaketa egunean lasai zegoela onartu du, "lasai nintzen, izan ere, bi ordu izan genituen idazlanaren zirriborroa egin eta garbira pasatzeko."

"Gaia askea zen, baina haiek emandako hitz batzuk sartu behar genituen idazlanean," adierazi digu.

Istorioari buruz galdetzeran, "mutil bat makina batean sartu eta Coca-Cola munduan murgiltzen denaren istorioa idatzi nuen," adierazi digu eta horrek eman dio saria Maitaneri. •

UDALA

Goiegi-Ibarrako BOEn promozioan parte hartzeko epea 10 egun barru itxiko da

Maiatzaren 24an, astelehenean Goiegi-Ibarra babes ofizialeko etxebizitzaren zozketan parte hartzeko informazioa GAOn argitaratu zen. Beraz, bertan argitaratu eta bihamunetik hasita, 15 egun baliodontar promozio horretako BOE-tan parte hartzeko aukera itxi egingo da. Erregistroa irekita jarraituko du, baina etorkizunean egingo diren babes ofizialeko etxebizitzetan parte hartzeko.

Beraz, oraindik izena eman ez baduzu, gogoratu gaurtik hasita, hamar egun baliodontar geratzen zaizkizula Goiegi-Ibarra BOEn zozketan partu ahal izateko eta bete behar diren paper guztiak Lasarte-Oriako erregistroa eramateko. •

AISIA

Udalekuak prestatzeko asteburua

Udako txokoak eta udaleko itxiak prestatzeko, 43 begirale eta koordinatzaile bildu ziren lehengo asteburuan Orioko Txurruka-ko arterpetxean.

Asteburu pasaren helburua begiraleak elkar ezagutzea eta hauek heztea, beste edukien artean, *Hezitzaileek asko egin dezakete* formazioa jaso zuten. Honetaz gain, adin ezberdinetako udalekuetako programazio erakargarria osatu zuten.

Takuneko aisiako arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete begiraleei, "asteburuan izandako motibazio eta giro onagatik." •



Begirale eta koordinatzaileek heziketa eta jolasen asteburua izan zuten.

BIDEOFORUMA

Bizitzaren ezustekoak aztergai Zentro Zibikoan

Asteartean, *El hijo de la novia* filma ikusi zuten Emakumeen Zentro Zibikoan. Filma hasi baino lehen, honetan agertzen diren hainbat gai jorratu zituzten bideoforumean bildu ziren emakumeek, besteak beste, bizitzan zehar ematen diren aldaketak, konpromezu falta edo Alzheimerra. •

SAN PEDROAK

Helduen danborradako entseguen hasiera

San Pedro jaietarako hilabete besterik ez da geratzen, horregatik, astelehenean, maiatzaren 31n, emango zaie hasiera helduen danborradako entseguiei. Sasoeta-Zumaburu ikastolaren Sasoeta eraikineko gimnasioan egingo dira entseguak, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Danborradan parte hartu nahi dutenek, beraz, astelehenean dute aukera izena eman eta entsaiatzen hastekoa. •

UDALA

Burgoseko udalekuetan izena emateko azken egunak

Lasarte-Oriako Udalaren Gizarte Zerbitzu, Enplegu eta Kooperazio sailak uztaileko lehenengo hamabostaldian antolatu dituen udalekuetarako izena emate epea astelehenean, maiatzaren 31n, amaizten da.

Burgosen izango dute leku udaleku itxiek uztailearen 1etik 15era. Bertan, 10 eta 14 urte arteko herriko gaztetxoentzat prestatutako ekinza ugari egingo dituzte, hala nola, mendiko ibilaldiak, kirol jarduerak edo ur jolasak.

Udaletik jakin arazi dutenez, lekua dago oraindik. Izena ematea udalekuko Erregistro Nagusian egingo da goizeko 9:00etatik 13:30era. •

Dantzari Txiki eguna igandean da

Urtero legez, herriko kaleak musikaz eta dantzaz beteko dira igandean, Erketz Dantza Taldeak antolatutako Dantzari Txiki egunari esker.

Bost izango dira aurten parte hartuko duten taldeak. Erketz txiki eta Landaberri ikastolako dantza taldeez gain, Sestaoko Salleko, Errenteriako Ereintza eta Falceseko Makaila taldeak ikusiko ditugu goizean kaleetan dantza egiten.

Desfilea eta saioa

Erketzeko antolatzaileek azaldu digutenez, talde guztiak goizeko 10:30ean dute hitzordua Andatza plazan.

Eta hamaiketako hartu osten, hasiko da desfilea. Lau ibilbide egongo dira, batetik Sasoeta auzo inguruan egingo



laz ez bezala, antolatzaileek arratsaldeko saioa Andatza plazan egitea espero dute.

dena; bestetik, Atsobakar aldekoa; hirugarren ibilbideak Zumaburu aldera egingo du eta laugarrenak, erdialdera.

Etxeetara joan, bapo bazkaldu eta, 17:00etan, Andatza plazan eskainiko dute saioa

talde guztiak, "bakoitzak 10 minutukoa gutxi gorabehera".

Eguraldi txarra eginez gero, ekitaldi guztiak Michelingo Kirol guneko frontoian egingo lirakeela jakin arazten dute antolatzaileek. •

Gidabaimena euskaraz, merkeago

Ikasturtea bukatzeaz dago eta uda bitolean. Garai honetan hasten dira 18 urteko gazteak gidabaimena ateratzeko tramiteekin. Hori dela eta, Buruntzaldeko Udalek, *Semáforo berdeak!* Gidabaimena euskaraz ekimenaren bitartez, gidabaimena euskaraz ateratzen dutenei parte teorikoa doan lortzeko aukera eskaini nahi diete, auto-eskola bakoitzeko sari bat zozketatuz, 11 gutzira.



Gidabaimena parte teoriko bat musu-truk

Aurten, Buruntzaldeko Udalek *Semáforo berdeak!* Gidabaimena euskaraz ekimenari jarri dute abian, eta parte hartzen duten Buruntzaldeko 11 auto-eskola bakoitzean, gidabaimenaren parte teoriko baten kostua zozketatuko dute, 400 euroko mugarekin, gidabaimena euskaraz ateratzen duten ikasleentzako.

Saria irabazteko aukera izateko lehenbiziko baldintza gidabaimena euskaraz ateratzea da, eta bigarrena, eskola-eragilearen onaz gero, zozketatuko dute, 400 euroko mugarekin, gidabaimena euskaraz ateratzen duten ikasleentzako.

Esku-ori hau 2010ean 18 urte betezen dituzten Buruntzaldeko gazte guztiak bidali zate exera, baina auto-eskoletan bertan ere aurki daitezke.

Ezan behar da, gainera, arretan aipaturiko baldintzak betetzeko, gidabaimena ateratzeko, eskola-eragilearen onaz gero, zozketatuko dute, 400 euroko mugarekin, gidabaimena euskaraz ateratzen duten ikasleentzako.

Saria irabazteko aukera izateko lehenbiziko baldintza gidabaimena euskaraz ateratzea da, eta bigarrena, eskola-eragilearen onaz gero, zozketatuko dute, 400 euroko mugarekin, gidabaimena euskaraz ateratzen duten ikasleentzako.

Telegiografia berriti esker; Buruntzaldeko gazteak era erakargarriagoan ikasi dezalazteko gidabaimeneko parte teorikoa.

Azerieketa teorikoa
Azerieketa teorikoa 30 galderaz dago osatuta eta ez da 3 sletak baino gehiago egitea onartzen. Hala eta guztiz ere, oso adierazgarriak dira. "Ezinezko bantoi" da lehenengo aukeraren azterketa teorikoa gaituzten duena. Izan ere, ongi presikatzen zate ikasleei, Internet edo CD bereziak erabiliz.

Ikastaro intentsiboa
Ohiko metodoari jarraituz, hau da, eguneko bi edo hiru ordu eginez, -liburua irakurri, klase teorikoa entzun eta galderak erantzun-, ikasleek hamabost egun behar izaten dute, gutxienez, azterketa teorikoa prestatzeko.

Azkenaldian modan jarri dira azterketa prestatzeko ikastaro intentsiboak. Hauen egun kopurua murriztu egiten da, eta ikastaroraren izenak diran bezala, eguneko ordu kopurua tinkotu egiten da, atzeratu, hau da, azterketa 4 edo 5 egunetan prestatzeko, eguneko ordu kopurua 6ra igotzen da.

Ikasteko baliabideak
Gidabaimena era erakargarriagoan ateratzeko helburuarekin, teknologia berriak erabili dira. Telegiografia berriti esker; Buruntzaldeko gazteak era erakargarriagoan ikasi dezalazteko gidabaimeneko parte teorikoa.

Azerieketa praktikoa
Azerieketa praktikoa ostean, praktika da. Praktika auto-eskolekin egiten diren bitartez, gero, jaiarriko bertan ere, erakartzen direla ikasleak, baina azterketa eguna heluzten, teorikoa baino zailtasun gehiagorekin egiten dute. Auto-eskolara hurbildu eta gidatu. Ez galdu gidabaimenaren aukera, ateratzeko, ateratzeko merkeago, ateratzeko Buruntzaldeko udalek eskaintzen dituzten aukera. •



Gainera, egun horretan bakarra nintzen euskaraz egiten eta horregatik, azkena sartu nintzen. •

'Lagunek zail egingo zitzaidala uste zuten, baina erraza izan da'

Goizane Oroz/ Gidabaimena euskaraz atera du

Prestakuntza eta azterketa euskaraz egiten lehenetarikoa zirela esan al zizuten?
Bai, auto-eskolakoak alpatu zuten. Euskaraz egiteko animak eman zitzaizkidan eta aurrerago zailtasunik edo ikusten baiduten gaztearen pasaztereko aukera nola alpatu zitzaizkidan. Eta euskaraz egitea aukeratu nuen.

Nola jakin zenuen gidabaimena euskaraz egiteko aukeraz zuzenean?
Oroez Lasarte-Oria lehenengoarikoa izan da gidabaimeneko azterketa euskaraz egiten. Harekin bildu gara bere esperientzia ezagutzeko.

Nola jakin zenuen gidabaimena euskaraz egiteko aukeraz zuzenean?
Lagun batek eman zidan aukera honen berri.

Auto-eskolara hurbildu, aukera horri buruz galdetu eta informazio gehiago eman zidaten.

kurtzen nuen, eta zailtasunik banuen galdetu eta azaltzen zidaten.

Gero, ordenagailuan ibiltzen nintzen euskaraz jarri nintzen multimedia berria galderak erantzuten, eta azterketa prestatzen.

Caldean pila dago. Caldearen gaztearen pasaztereko aukera nola alpatu zitzaizkidan. Eta azalpenak emanen zidan, erantzunak ematen zidan, erantzunak ematen zidan, erantzunak ematen zidan.

Nola baliabideak izan dituzte azterketa prestatzeko?
Euskarazko eskuliburuak irakurtzen nuen, eta horretan sartu nintzen. •

Oraín

SEMÁFORO BERDEAK!

Gidabaimena EUSKARAZ

BURUNTZALDEAN NON:

Andoain	Juan Buitola Erro	943 59 44 06
BENBOTOZGA	Agustín de Larrea 11	943 30 06 04
MENDI		
Asteigerriaga	Palaneri 6	943 33 22 11
OTAVENDI		
Hermit		
HERNANI	Larrea 3	943 56 04 34
LAGUNAK	Urtebe 7	943 55 54 16
OTAVENDI	Karrubaina 1	943 33 14 19
	Izpirina 1	943 55 35 45
Lasarte-Oria		
IZARRA	Geldid 11	943 37 70 05
LASATTE	Nagusua 5	943 37 06 92
MUGICA	Gutxo 1	943 36 22 75
Urdeta		
SOLIZABAL	Idiazabal 24	943 33 41 69
Urrullu		
SOLIZABAL	Inem 2	943 37 69 36

EMAN BIDEA

HAUXE DUZU GIDABAIMENA ATERATZEKO MODURIK ERAKARGARRIENA!!

DAKIZUNA ERABILI EZ DAKIZUNA IKASTEKO!

www.buruntzaldea.org

Andoain, Asteigerriaga, Hernani, Lasarte-Oria, Urdeta eta Urdetako Udaleko Euskarako Batzordeak

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 29

17:00etan, Ostadar-Zumaiaiko (Erregional Goren, igoera) Michelinen.

11:00etan, Lagun Onak-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa saillkapena) Garmendipe, Azpeitia.

11:45ean, Oiarzun-Ostadar (I. kadetea, 3. postua) Karla Lekuona, Oiarzun.

15:30ean, Texas Lasartearra-Mariño (I. Erregionala, kopako finala) Karla Lekuona, Oiarzun.

15:30ean, Elgoibar-Ostadar (Emakumezkoen Liga, kopa) Mintxeta, Elgoibarren.

FUTBOLA 7

Larunbata 29

18:30ean, Spartak de Obelix-Syslan.es (III. maila) Berio, Donostian.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 29

MOSSO MEMORIALA I. FASEA
10:00etan, Tragoxka- Naiban
11:00etan, Biyona-Okela
12:00etan, Ilargi-Siglo XX

ATLETISMOA

Larunbata 29

10:30ean, Landaberriko Ane Galardi atleta Euskadiko Eskolarteko jokoetan parte hartuko du, Zorroza atletismo pistan, Barakaldon.

16:30etatik aurrera, LOKEko atletak Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko dute.

Igandea 30

10:30etatik aurrera, LOKEko atletak Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko dute.

IGERIKETA

Larunbata 29

Egun osoa, Buruntzaldea Igeriketa taldeko hainbat igerilari-rik Euskal Herriko Eskolarteko jokoetan parte hartuko dute, Gorostiza kiroledegian. Barakaldon.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 29

16:30ean, Bazpi Txirrindularitza Eskolako gaztetxoek Zumaia-ko Saria proban parte hartuko dute, Zumaian.

Igandea 30

08:00etan, Ostadarreko ziklo-

turista taldeak Ibardinera egin-
 du irteera.

09:30ean, Bazpi Txirrindularitza Eskolako jubentilek XLVII Zummy trofeoa-16. Juanjo Zabala oroimeznezkoan parte hartuko dute, Egiako auzoan, Donostian.

SQUASHA

Kiroldegian, 18:00etatik aurrera Ostirala 28

Txapeldunen fasea
 Alberto Udabe-Aitor Artola
 Mikel Zugasti-Agustin Erkizia

Astelehena 31

Kontsolazio fasea
 J. Serrano- F. Montero
 I. Serrano-J.R. Urruzola

Asteartea 01

Txapeldunen fasea
 Alberto Udabe-Iker Cañedo
 Kinin Calvo-Mikel Zugasti

Asteazkena 02

Kontsolazio fasea finalurrekoak

Osteguna 03

Txapeldunen fasea
 Aitor Artola-Agustin Erkizia
 Mikel Zugasti-Alberto Udabe

TENISA

Larunbata 29

10:00etan, Landaberriko Paula Uli jokalariek Euskadiko Eskolarteko jokoetan parte hartuko du, Lasesarre kiroledegian, Barakaldon.

Igandea 30

10:00etatik aurrera, Landaberriko Paula Uli jokalariek saillkapena lortuz gero, Euskadiko Eskolarteko jokoetako finalurrekoak eta finalak izango ditu, Lasesarre kiroledegian, Barakaldon.

BOLA-JOKOA

Igandea 30

Egun osoa, Ostadarreko bola joko taldeak Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko du, Ategorrietan.

ESKOLA KIROLA

Larunbata 29

Goizean, LH1 eta DBH4 maila arteko gaztetxoek Eskola Kirola festa dute Michelingo Kirol gunean.

Arratsaldean, LH3 eta LH4ko gaztetxoek tenis topaketa dute.

Igoeraren eta koparen bila

■ Ostadarrek Ohorezko mailarako igoera etxean jokatu- du ■ Texas Lasartearrak kopako finala du Oiarzun

Ostadarreko erregional taldeak lehengo larunbatean igoera eskura izateko aukera paregabea galdu zuen Zumaian.

Nahiz eta ongi jokatu, Joxean Beldarrainen mutilek 2 eta 1 galdu zuten Zumaia-koen aurka eta etxean irabazi behar dute aste honetan igoera ziurtatzeko. Zail izango dute, Zumaia-koen defentsa ongi baitabil, baina Ostadarrekoek ez dute amore ematen.

Horregatik, Ostadarrek deialdia egiten die herritarrei larunbatean arratsaldeko 17:00etan, Michelingo zelaira hurbildu eta Erregionaleko taldeari animoak emateko.

Texas Lasartearra finalean

Bestalde, Texas Lasartearren erregionaleko mutilek



Texas Lasartearra taldeak erraz lortu zuen larunbatean finalerako txartela.

finalerako txartela lortu zuten, lehengo larunbatean, Michelinen Dunboari 3 eta 1 garaituz.

Eta larunbata honetan, 15:30ean, Oiarzungo Karla Lekuona zelaian Mariñoren aurka jolastiko du finala. •

Lasarte-Oria pilotako herriartekotik kanpo



Donostia nagusi izan zen kadete eta gazte mailan; Lasarte-Oria, seniorretan.

Esku pilotako herriarteko txapelketatik kanpo geratu da Lasarte-Oria. Donostiaren aurka 4 eta 2 galdu zuen final laurdenetan, izan ere, joan eta etorriko partidatan emaitza berdina lortu dute, 2 eta 1 Donostiaren alde. Herriko taldeak seniorretako partidatan lortu zituen puntuak, kadete eta gazteetan, ordea, Donostia izan zen nagusi. Hala ere, "oso pozik gaude aurten egindako lanarekin, txapelketako fase honetara iristea ez baikenuen espero," aipatu digu Jose Felix Solano Lasarte-Oriako taldearen arduradunak. •

Squasheko txapelketa soziala bigarren fasean da

Lehengo astelehenean hasi zen Squasheko txapelketa sozialeko bigarren fasea. Ekainaren 12an jokatu diren finalen egunera arte, bi lehiaketa ezberdin egongo dira kiroledegian, batetik txapeldunen fasea eta bestetik, kontsolazioa.

Ligila eta kanporaketa

Iazko finala jokatu zuten Alberto Udabe eta Agustin Erkiziaz gain, Mikel Zugasti, Kinin Calvo, Aitor Artola eta Iker Cañedo lehiatuko dira, txapeldunen fasean. Hauek guztiek ligila txapelketa jokatu dute eta bi onenek finalerako txartela lortuko dute.



Txapeldun eta kontsolazio faseetako partidak daude astean zehar, kiroledegian.

Kontsolazioan, berri-
 hamar jokalarik parte hartuko dute eta kanporaketa siste-

maz, erabakiko da lehiaketa honetako finala nork jokatu-
 duen. •

Kiroletako oharrak

Ostadar K.F. denboraldi amaierako afaria

Ostadarrek denboraldiari amaiera emateko afaria antolatuta du Araeta jatetxean, ekainaren 5ean, gaueko 21:00etan. Kirol Fundazioko atal guztiak daude gonbidatuak afarian parte hartzera. Gaur da Ostadarreko bulegotik pasa eta tiketa hartzeko azken eguna.

Egunero

Erakusketa

JUAN MARI CEREZO, herriko musikari zenaren omenez argazki erakusketa jarriko dute Lasarte-Oriako taldeek. Jalgin, egun osoan.



Erakusketa

MIGUEL A. FELIPEren lanak ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.



Ostirala, 28

Kontzertua

ARIMAZ KAMERA ORKESTRAREN emanaldia Danok Kide elkarteak antolatutako V. Musika Topaketan barruan. Brigatataren komentuan, 19:30ean.



Garagardo azoka asteburu honetan Xirimirin

GARAGARDO AZOKA antolatutako Xirimiri elkarteak maiatzaren 28an, 29an eta 30ean. Ostiralean 18:00-23:00; larunbatean 12:00-23:00etara eta igandean 12:00-19:00etan egongo da azoka zabalik. Ukondoa, saltxitxak eta hainbat gauza dastatzeko aukera paregabea.

MAIATZAREN 28, 29 ETA 30EAN
XIRIMIRI ELKARTEAN

Jam sesioa

J. 345 TALDEA izango da gonbidatua Jam Sesioan, Talde donostiarrak jazz, swing eta funk jorratzen du. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.



Igandea, 30

Dantza

XXII. DANTZARI TXIKI eguna ospatuko da. Herriko kaleetan zehar, egun osoan.



Astelehena, 31

Zinea

CON EL AGUA AL CUELLO, R.I.P.SOL, CONTRAJUNTA 2007 eta QUIERO SER TORTILLA filmak eskainiko dira Osina elkarteak, Ekologistak Martxan taldearekin batera antolatutako ekoizinemaldian. Manuel Lekuona Kulturetxean, 19:00etan.

VIII. Antzerki eta Dantza Astea

Ostirala 28

22:30ean

A ze kuadrilla amonak eta hila laburmetraia, helduen 2. taldea.



20/Klownkidetza, helduen 1. taldea



Bi emanaldi hauekin amaiera emango zaio 8. Antzerki eta Dantza Asteari.

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera
10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



Manuel Lekuona kulturetxea

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Etzeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etxerategi kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udalteixearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Txakurrak lasai askatzeko parkea

Hainbat herritarrek udalari proposamen bat luzatu diote txakurrek bere beharrak egiteko eta lasai askatu ahal izateko parke bat egokitu dezan. Horretarako herritarren sinadurak bildu behar dituzte. Interesa duzuenok Lasarte Albaitaritza klinikan, Zoomania dendan, Buenetxe tabernan eta Akeita tabernan dituzue orriak sinatzeko.

Batxilergoko titulua

Lasarte-Oriako Institutuak

jakin arazi nahi du 2009an ikasketak bukatu zutenek, batxilergo tituluak jaso ditzaizketela goizeko 9:00etatik 13:00ak bitartean. Norberak jaso behar du, bestela nortasun agiriaren fotokopiarekin jaso daiteke ere.

Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatela jasota, diruzorroa, urrezko katea, zilarrrezko zintzilarioa, belarrirako beltza eta dora-tua, betaurreko graduatuak, erloju digitala, urrezko aliantza, Jose Luis grabaketarekin eta Osakidetzako txartel bat.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan

ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Marrazketa eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrazketa eta margo eskolan plazak badaude. Hurrengo ikasturterako izena emateko interesa dutenek jo dezatela kulturetxeko 2. solairura 18:00etatik 19:00ak bitartean, astelehenetan, ostiraletan eta larunbat goizetan 09:30etik 11:30era.

Txokotako gurasoentzako bilerak

Udako Txokotan parte hartu-

ko duten haurren gurasoentzako bilerak ekainan izango dira. 2005 eta 2007 (HH2-HH4) bitartean jaiotakoekin bilera ekainaren 10 izango da, 17:00etan euskaraz eta 17:45ean gaztelaniaz. 2002 eta 2004 (HH5-LH2) bitartean jaiotakoekin ekainaren 10ean dute ere, 18:30ean euskaraz eta 19:15ean gaztelaniaz. 1998 eta 2001 (LH3-LH6) bitartean jaiotakoekin berriz, ekainaren 11n dute bilera, 17:00etan euskaraz eta 17:30ean gaztelaniaz. Abuzturako izena eman dutenek berriz, ekainaren 11n arratsaldeko 19:00etan dute bilera.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Isa Fdez de Agirre A ze kuadrilla, amonak eta hila laburmetraia grabazioaren arduraduna

Iritsi da amona-kuadrillaren abentura

A ze kuadrilla, amonak eta hila! laburmetraia gaur ikusiko da kultur etxean

Urte osoa lanean egin dute 8. Antzerki eta Dantza Astean beren lana erakusteko. Antzerkiko taldekidea ez denari, burututako lanari buruzko informazioa ukatu diote eta horrek jakin-min handia sortu du askorengan. Ez pentsa hurrengo elkarrizketan asko aurreratu dutenik! Urtean zehar izan duten jarrera isila mantendu du grabazio arduradunak. Baina azkenean, hemen dugu. Jakinmina asetu nahi baduzu, gaueko 22:30erako emanaldira joan beharra duzu. Laburmetraia ostean gainera, 20/Klownkidetza antzezlanara eskainiko dute.

Itxaso MORENO

Isa Fdez de Agirre izan da A ze kuadrilla, amonak eta hila! laburmetraia grabazioaren arduraduna. Telebistan eta Pirrotx, Porrotx eta Mari-mototsen bideoak grabatzen ditu, eta orain, laburmetrai honi esker zinema munduan sartu da. Ideia eta proiektu proposatu ziotenean buru-belarri sartu zen honetan.

Antzerki Astean parte hartzen duzun lehenengo aldia da?

Aurreko urteetan bideoak sartzen ibili naiz, baita emanaldien grabaketak egiten, eta gero muntaiaz arduratu naiz. Baina talde baten kide bezala aurretik da lehenengo aldia.

Eta nolatan sartu zinen proiektu honetan?

Talde honen kideekin harremana nuen. Talde aktiboa da, beti esperientzien bila.

Laguntzen hasi nintzen bideo motz batzuk grabatzen. Laburmetraia egitea proposatu zidaten eta pentsatu gabe proiektuan murgildu nintzen.

Grabaketaz aparte, taldean ere parte hartu duzu?

Hasieratik taldekide guztiak egin dugu elkarrekin lana: argu-

mentua, istorioaren nondik-norakoak, gidoiaren idazketa...

Astean behin elkartu gara eta benetan, esperientzia zoragarria izan da.

Lan ikaragarria egin dugu eta guztion artean gainera: atrezzoak, materiala, grabatzeko lekuen bila. Guztia den artean egin dugu.

Nolakoa izan da talde amateur batekin lan egitea?

Profesionalen antzera jokatu eta lan egiten dute. Nahiz eta medioa ez menperatu, ilusio handiz egin dugu lan eta hori grabaketan eta emaitzan argi geratu da.

Nolakoa izan da esperientzia?

Oso ona. Telebistan ibili naiz, eta laburmetraiak telebistaren eragina du. Produktu oso berezia da. Azken finean, antzerki grabatua da.

Oso dibertigarria izan da. Talde honekin lan egitea gozamen izan da. Oso ondo pasa dugu nahiz grabaketak gogorak izan diren.

Editatzen nengoen bitartean ere barreari ezin eutsi ibili naiz. Oso momentu onak pasa ditugu elkarrekin.

Askorik aurreratu ez arren... zerbait kontatzerik?



Antzerki eta Dantza Astea aurretik nobedade batekin datorkigu, laburmetraia. Talde honek herrian ere grabatu zuen.

Amona koadrila batekin eginkizun bat dauka. Hori egin beharra daukate, nola edo hala. Eta egin ahal izateko nahiko abentura eta gertaera bizi beharko dituzte.

Sorpresa ugari dago eta bukaera oso kuriozosa da. Listo, ez dugu gehiago aurreratu.

Zergatik 'intriga' hori?

Bestela grazia galtzen duelako. Istorioa motza da eta, gutxi bada ere, zerbait kontatuz gero, dena kontatzen da.

Tragikomedia bat da. Amona bakoitzaren bizitza azaltzen da, nondik datozen eta nola bukatu dute elkarrekin eta leku horretan. Bakoitzak jasan dituen bizipen gogorak kontatuko dizkigute.

Baina alde komikoa ere badu. Azalean komikoa badi-rudi ere, mamia tragikoa da.

Taldeak zenbat partaide ditu?

Zazpi aktore, zuzendaria, grabazio laguntzailea eta lagunt-

zen ibili diren hamabost lagun. Pasada bat izan da, taldea hirukoiztu baita.

Jendea behar genuen grabazioa ez eteteko eta aurrera egiteko. Guztiok lan ikaragarria egin zuten. Zerbait behar banuen, momentuan neukan, ia eskatu gabe.

Non egin dira grabazioak?

Toma batzuk herrian bertan. Eta zati handiena Baltanosen, Palentzian. Asteburu pasa joan ginen.

Gogorra izan zen, goizeko 7:00etan esnatu eta gaueko 22:00ak arte grabaketan. Arropa ez genuen bazkaltzeko ere kentzen. Herriko jendea harrituta zegoen. Esperientzia zoragarria, primerakoa izan zen.

Anekdotarik?

Baltanosen aitona eta amona bat figurante lanak egin zituzten. Grabatzen ari ginela, ahots altuan eta erdaraz, hizketan aritu ziren; Ze aurpegia daukan

honek, nola jaten duen besteak, ez zutela ondo ulertzen esandakoa... Bitan edo hirutan moztu behar izan genuen.

Azkenean, azalpena eman, aktore gisa parte hartu behar zutela esan, eta toma primeran atera zen.

Zergatik hurbildu behar gara gaur kultur etxera?

Gauza berria delako Antzerki eta Dantza Astean. Kuriositate bat. Orain arte mantendutako jakinmin guzti hori, behingoz ezabatuko delako. Eta gure aitona-amona guztiei omenaldi bat egin diegulako.

Hurrengo urtean aktorea?

Oholtza gainean? Ez! Izua diot eszenatokiari. Bideo grabaketak edo muntaketak behar badira, ni hor egingo naiz, baina atzean beti! •

Elkarrizketa osoa eta antzezle bati eginkoa www.txintxarri.info-n

GARAGARDO AZOKA XIRIMIRIn

maiatzak 28-29-30 xirimiri elkarte

UKONDOACODILLO

SALTXITXAKSALCHICHAS

OILASKOHEGOAKALITASPOLLO

PATATABIXIAKBRAVAS

SUKALDEKO ORDUTEGIA

Ostirala 28 18:00 - 23:00

Larunbata 29 12:00 - 23:00

Igandea 30 12:00 - 19:00